

EUSKARA IKASTAROAK

2017ko UDAKO IKASTAROAK

Argibide gehiago:

- 2/2017 Jarraibideak
- Zerbitzu-erakundeetako euskara zerbitzuak
- Zuzendaritza Nagusiko Euskara Zerbitzu Korporatiboa
- Internet: www.osakidetza.euskadi.eus
- Intranet: www.osakidetza.eus

ESKABIDEAK EGITEKO EPEAK, TRAMITAZIOA ETA JAKINARAZPENAK

- **2017ko apirilaren 24tik maiatzaren 9ra**, biak barne.

Eskaera Internetetik egingo da; horretarako NANA eta pertsonal zenbakia beharko dira:

- www.osakidetza.eus
- www.osakidetza.euskadi.eus

Gehienez ere hiru ikastaro egin ahal izango dira eta ikastaro bakoitzeko eskaera bat egin beharko da.

- Ikastaroa onartua edo ukatua izan den **jakinaraztea**: Osakidetzako Giza Baliabideen zuzendariaren ebazpenaren bidez egingo da. Aipatutako ebazpena maiatzaren azken astean jarriko da jende aurrera Osakidetzaren webgunean, baita zerbitzu-erakundeetan zabalkunde handiena duen hedabideetan ere.

NORENTZAT

Ikastaro hauek 2017ko udan euskara ikasi nahi duten Osakidetzako langileei eskaintzen zaie.

Udako ikastaroetarako eskaera egiteko ez da beharrezkoa izango 2016-2017 ikasturtean matrikulatuta egon izana.

Ikastaroa eskatzeko baldintza hauek bete behar dira:

- Zerbitzu aktiboan, senideak zaintzeko eszedentzian edo zerbitzu berezietan egotea 2016ko martxoaren 9tik 2017ko maiatzaren 9ra bitartean.
- Aldi baterako kontratatuen kasuan, epe horretan guztira sei hilabetetik gora lan egin behar izan dute Osakidetzan.

Espezialitatea egiten ari diren mediku eta erizain egoiliarrek euskalduntze ikastaroak egin ahal izango dituzte, euren prestakuntza aldiaren urtea gorabehera.

UDAKO IKASTAROEN EZAUGARRIAK ETA BALDINTZAK

Ikastaro guztiak lanorduetatik kanpokoak izango dira; beraz, langileak oporraldietan joango dira eskolera.

Ikastaroek baldintza hauek bete behar dituzte:

- a) Ikastaroak HABEk homologatuak izan behar dira.
- b) Euskaltegi publikoek edo pribatu homologatuek eman behar dituzte.
- c) Gutxienez **80 ordukoak** izan behar dute.
- b) **EZ** da onartuko **autoikaskuntza** bidezko ikastarorik.

Udako ikastaroen deialdi honetan eskaintzen den hizkuntza-prestakuntza IVApek finantzatuko du horretarako duen aurrekontuaren bidez.

MATRIKULA ORRIEI BURUZ

- Langileak egindako eskaerak baldintzak betetzen baditu, IVAPEk matrikula-orria emango dio.
- Matrikula orria **agiri ofiziala** eta **pertsonala** da.
- Matrikula orriaren bitartez, **interesatuak berak aukeratuko du** zein euskalategi publiko edo pribatu homologatutan matrikulatu.
- IVAPEk langileak egin duen matrikula ordainduko du, betiere ondorengo **baldintza hauek** betetzen badira:
 - a) Ikastaroak HABEk homologatuak izan behar dira.
 - b) Euskalategi publikoek edo pribatu homologatuek eman behar dituzte.
 - c) Gutxienez 80 ordukoak izan behar dute.
 - b) **EZ** da onartuko autoikaskuntza bidezko ikastarorik.
- 2016ko udako deialdian matrikula orria jaso ez, edo itzuli ez zuten eskatzaileen eskaerak baztertuak izango dira.
- Matrikula orriak langilearen zerbitzu-erakundera helduko dira.
- Langileak ikastaroa ez egitea erabakitzen badu, matrikula orria itzuli egin behar du.
- Ikastaroari uko egitea jakinarazteko inprimakia bete behar da eta zerbitzu-erakundeko pertsonaleko zuzendaritzan aurkeztu matrikula orriarekin batera. Matrikula orriak itzultzeko azken eguna 2017ko irailaren 29a izango da.
- Matrikula orria ez itzultzea edo ez jasotzea nahikoa izango da hurrengo deialdian langilearen eskabidea ezesteko.

ESKOLA UZTEA

- Eskolan hasi ondoren ikastaroa behin betikoz utziz gero, horren berri eman behar dio langileak bere pertsonaleko zuzendaritzari eskola uztea gertatzen den une berean. Horretarako, "Eskola-uztea jakinarazteko inprimakia" izeneko agiria bete eta dagokion pertsonaleko zuzendaritzan erregistratu beharko du.
- Derrigorrezkoa izango da eskola uztea jakinaraztea. Eskola-uztea jakinarazten ez bada, ikasleak jarraitu egingo du ordu-kredituaren orduak gastatzen. Ordu-kredituaren kontaketa eteteko IVAPEk eskola-uztearen data inprimakiaren erregistro data hartuko du kontuan.

INPRIMAKIAK: IKASTAROARI UKO EGITEA ETA ESKOLA-UZTEA JAKINARAZTEKO

- Udako ikastaroari eta eskola-uztea jakinarazteko agiriak honako helbide hauetan egongo dira langileen eskura:
 - www.osakidetza.eus (Profesionalak > Euskara > Euskarazko prestakuntza > Euskalduntze ikastaroak > Udako ikastaroak > "Ikastaroari uko egiteko inprimakia" / "Eskola uztea jakinarazteko inprimakia")
 - www.osakidetza.euskadi.eus (Profesionalak > Euskara > Euskara ikastaroak > Udako ikastaroak > Ikastaroari uko egiteko inprimakia" / "Eskola uztea jakinarazteko inprimakia")

ORDU-KREDITUA

Udako ikastaroa egin ahal izateko, aldeko saldoa izan beharko du langileak; bestela, IVApek bazter utziko du eskaera.

Nola aplikatuko du IVApek ordu-kredituaren kontrola udako ikastaroetan?

- 2016-2017 ikasturtea urrian hasi zuten ikasleei udako deialdian ez zaie berriro ordu-kreditua aplikatuko. Ondorioz, ikasturtea urrian hasi zuten ikasleek udako deialdian parte hartu ahal izango dute nahiz eta udako eskaera egiten dutenean ordu-kreditua negatiboa izan.

- 2016-2017 ikasturtea otsailean hasi duten ikasleei udako deialdian ez zaie berriro ordu-kreditua aplikatuko. Ondorioz, ikasturtea otsailean hasi duten ikasleek udako deialdian parte hartu ahal izango dute nahiz eta udako eskaera egiten dutenean ordu-kreditua negatiboa izan.

- 2016-2017 ikasturtea udan hasiko duten ikasleei eskaera egin orduko aplikatuko zaie ordu-kredituaren kontrola, eta saldo negatiboa dutenak ezin izango dira eskolan hasi. Hau da, ikasle horiek udako ikastaroa egin ahal izateko, aldeko saldoa izan beharko dute; bestela, IVApek bazter utziko du eskaera.

Edozelan ere, udako ikastaroetan emandako orduak ordu-kreditutik kenduko dira, ikasturtean zehar emandako gainerakoak bezalaxe.

DATUEN BABESA: LEGE OHARRA

Jarraituz hauen ondorioz jasoko diren datu pertsonalen kudeaketa arau hauek xedatutakoaren arabera egingo dira: Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, bai eta datu pertsonalak gordetzen dituzten fitxategi automatizatuen segurtasun-neurrien Araudiak ere (ekainaren 11ko 994/1999 Errege-dekretuaren bidez onartutakoa).

Ikasleei buruzko datu pertsonalak Datuak Babesteko Espainiako Agentzia izenekoan erregistratutako IVAPen "Funtzionarioak euskalduntzea" eta Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren "Registro del personal de Osakidetza-SVS" izeneko fitxategietan egongo dira. Ikasleek Fitxategietako datuetara sartzeko, datuok aldatu eta deuseztatzeko eskubidea erabili nahi izanez gero. Horretarako, "Funtzionarioak euskalduntzea" izeneko fitxategiaren kasuan, IVApeko Idazkaritza Nagusira jo dezakete: Donostia-San Sebastian kalea, 1; 01010 Vitoria-Gasteiz. "Registro del personal de Osakidetza-SVS" izeneko fitxategiaren kasuan Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Giza Baliabideetako Zuzendaritzara jo dezakete: Araba kalea 45, 01006, Vitoria-Gasteiz.